

2017ko maiatzaren 3an ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 3

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga
ZINEGOTZIAK : M^a Jesus Arruabarrena
Asier Iburguren
Arkaitz Iruretagoiena
Igor Iturain
Hodeiza Sallen
Eñaut Guruzeaga
Aitor Arregi eta
Kontxi Lazkano
Sergio Cubero eta Jon Ander Azpiroz ez ziren bertaratu.

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2016ko apirilaren 5ean eginiko Udalbatzarraren Akta ontzat emanda aho batez.

2.- Urola Kostako Udal Elkarteko estatutuen aldaketa

Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak, 2016ko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkuran,Udal Elkartearen Estatutuen aldaketari hasierako onarpena eman zion.

Estatutuen aldaketaren helburua da Estatutuek bere xedearen barruan aurreikustea, hondakinen gaikako bilketaz gain, etxeko hondakin guztien bilketa, errefusa barne.

Estatutuen 5. artikulua ondoren jasotzen den tenorean aldatzea proposatu du Alkateak :

Udal Elkartearen helburuak Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkartearen osatzen duten udalerrien garapena eta udalerrri horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udaleneskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainikoditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):

Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzeara.

Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak.

Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.

Etxeetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak.

Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.

Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.

Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.

Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulua honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeko Estatutuakaldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

Idazkaria-kontuhartzaileak eginiko txostenaren berri eman du, gehiengo absolutorearen beharra azpimarratuz.

Botatu, eta aldeko 11 boturekin, beraz, aho batez, erabaki da:

“U.K.U.E udal elkartearen estatutuen aldaketa ontzat ematea”

3.- Eskari-galderak

E. Guruzeagak gogorarazi du pleno deialdia ez dela jarri iragarki taulan.

Bilera, 19,40tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, Idazkariak hau ematen du, Aian 2017ko maiatzaren 3an.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK